

## XI. Berdintasunerako gunea Foro para la Igualdad 2014



Eman pausoa.



Da el paso.



### Urriaren 13tik 20rako asteko programa:

#### ASTELEHENA 13:

**Zeanuri-Lemoa.** Autobusa. 9tatik 11ak arte. Antolatzailea: Arratiako Udalen Mankomunitatea

**LAN ORIENTAZIOAN ERE, BERDINTASUNA** Gazteentzako ekintza, lan orientazioan ere genero ikuspegia kontuan izateko, ikasketak aukeratzeko orduan generoa oztopo izan ez dadin

#### ASTEARTEA 14:

**Bilbo.** Salón de actos del Colegio de Médicos de Bizkaia. 12tatik 13ak arte. Antolatzailea: Mutualia.

**BERDINTASUNAREN BIDEZ, KUDEAKETAN AURRERA PAUSUAK** Pertsonen kudeaketan hurbilketa berriak antolaketa malguaren bitartez aukera berdintasuna bultzatzeko. Pertsonen beharrak kontuan izatearen abantailak eta garrantzia Lan Harremanetan berrikuntzak lortzeko.

**Berango.** Kultur Etxea. 19 horas. Antolatzailea: Berangoko Udala

**BATERAKO HEZKUNTZA GUNE EZ FORMALETAN** Hezkuntza gune ez formaletan (aisialdikoak, eskolaz kanpokoak) baterako hezkuntza lortzeko tresnak eta baliabideak.

**Bilbo.** La Bolsa. 17,30. Antolatzailea Adarra

**HENRI JAMESEN LAS BOSTONIANAS LIBURUAREN INGURUKO MAHAI-INGURU DIALOGIKOA** Emakumeek berdintasun arloan lortutako pausoen inguruan hausnartzea, oraindik lortzeko gelditzen direnen inguruan eztabaidatzea, emakumearen eta berdintasunaren inguruan bizitakoa partekatzea.

## ASTEAZKENA 15

**Gasteiz.** Antolatzaileak EJJIE eta Emakunde.

### **BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAKUNDE PUBLIKOEN SAREARI BURUZKO SHAREPOINTAREN AURKEZPENA**

Sarean parte hartzen duten erakunde publikoetako ordezkariak bakarrik zuzendua. Helburua: berdintasun neurriak eta politikak erakunde publikoetan barneratzen aurre egitea. Sharepoint-en oinarritzko erabilera ikastea interneten lankidetzarako tresna gisa.

**Bilbo.** Salón de actos del Colegio Oficial del Señorío de Bizkaia. 19.15 Antolatzaileak: Ekonomista, Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala y Colegio de Abogados de Bizkaia

**ZINE FORUM: "AMAREN ESKUAK"** "Amaren eskuak" filmaren proiektzioa eta ondorengo eztabaida eguneroko bizitzari aurre egiteko gure bizimoduak eta lanak duen garrantziaz ohartzeko, noiz eten jakiteak duen garrantziari buruzko hausnarketa egiteko, errutinak bultzatuta zenbait egoeratan non gauden ikusteko, stress egoerak aztertze eta gure bizitzaren hainbat mailatan zoriontsu izateko gure nahiekin ahalik eta hobeen lerrokatze. Ekitaldi hau, azaroan ospatuko diren bi ekintzekin, lotuta dago.

**Arrasate.** Iturripeko Kanpua, 18.30 Antolatzailea: Mondragon Unibertsitatea

**INDARKERI SINBOLIKOA: IKUSTEZINA DENA AGERIAN JAR EZAZU** Ekintzaren helburua berdintasunean aurrera pauso bat emateko indarkeri sinboliko kotzeptuaren baitan batzen diren hainbat arlo bistaratzea da, besteak beste komunikabideak (publizitatea, musika, zinema, telebista) bikote harremanak (erromantikotasuna) etabizitza soziaia (parranda, ligatzea).

## OSTEGUNA, 16

**Bilbo.** La bolsa. 9:30 Antolatzailea Emakume Ijotoen elkarte, Sin Romi

### **EMAKUME IJOTOEN X. JARDUNALDIAK - SIM ROMI - KULTURARTEKO FEMINISMOA**

Jardunaldiko programa emakumei buruzko kulturarteko eremu batean parte hartu, nork bere esperientzia partekatu eta beste kultura batzuetan gauzatzen ari diren banako eta taldeko ahalduntze prozesuak ezagutu nahi dituztenei dago zuzenduta.

**Bastida.** Autobusa 11tan. Antolatzailea IPACE

### **BATERAKO HEZKUNTZA EZ SEXISTA, JOLASAK ETA JOSTAILUAK**

Sentsibilizazioa eguneroko familia-eremuan, etxeko jolaserako ohiturei dagokienez, balio tradizionaletatik urrunduta, besteekiko errespetuzko arauen ikaskuntza gelditzen dutelako. Jolas eremuetan, adingabeak zaintzeari dagokionez, hezkuntza gaitasun arduratsua piztea eta berdintasunaren eta errespetuaren balioak besterentzea. Hizlaria: Pilar Cabañero. IPACEko gurasoentzako eskoletako psikologoa eta prestatzailea.

**Bastida.** Autobusa. 14:00 tan. Antolatzailea Negobide

**BERDINTASUNAREN ALDEKO NETWORKING TOPAKETAK - TAILER TEMATIKOA**

Negozioak zuzentzen dituztenei edo haien jabeei zuzendutako jarduera, emakumeak direnak nagusiki edo emakumeak funtsezko betekizunak betetzen dituzten erakundeetakoak. Topaketa horietan erreferentziak eta gomendioak, aukerak eta kontaktuak hartu eta emango dituzte parte hartuko duten enpresek eta profesionalak, dinamizatzaileek bultzatuta, ekintzak erraztuko dituztenak eta berez gutxitan sortzen diren baina hor dauden sinergiak sustatuko dituztenak.

**Leioa.** EHuko Zientzia eta Teknologia Fakultateko paraninfoan. 9.00tan. Antolatzailea: Ikasleen, enpleguaren eta gizarte erantzunkizunaren arloko errektoreordetza.

**BERDINTASUNERAKO ZENBAIT ERRONKA UNIBERTSITATEAN: SEXU ANIZTASUNA**

**ETA GENERO INDARKERIA** Jardunaldiak UPV/EHuko ikasleak ditu zehatzmehatz jasotzaile, baina irekia ere bada unibertsitateko gainontzeko pertsonalarentzat, honako helburu hauekin: a) lesbiana, gay, transexual eta bisexualen eskubideen eta EAEn garatzen diren politiken gaineko informazioa eman; b) UPV/EHuko ikasle eta beste edozein kide sentiberatzea homofobia, transfobia eta genero indarkeriaren aurka.

**OSTIRALA, 17**

**Bilbo.** Carlton Hotela. 9:15 tan. Antolatzailea Aspasia

**EMAKUMEA ETA KIROLARI BURUZKO IV MINTEGIA**

Emakumezkoen eta gizonezkoen kirol diziplinen parekatzea. Kirol baliabideetara iristen diren emakumeen kopurua areagotzea. Gehienbat gizonezkoak jarduten diren kirolean emakumeen parte hartzea areagotzea, kirola egiten duten emakume eta gizonezkoen kopuruaren arteko aldeak txikitzea, kirol erabakien eremuan emakumeak gehitzea. Kirol karrera bati uztera behartuta dauden emakumeen portzentajea txikitzea. Elkarteak indarra emateko tresna gisa sustatzea.

**Pasaia.** Kultur Etxea 11:00 tan. Antolatzailea: Asociación terapia y género

**HARREMAN OSASUNTSUAK ETA BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKOAK ERAIKI  
ETA EDUKITZEKO BALIABIDE PERTSONALAK EBALUATZEKO TAILERRA**

Senideekin, lagunekin, bikotearekin eta norbere buruarekin berdintasunean oinarritutako harremanak edukitzeko beharrezkoak diren gaitasunen autodiagnosia egingo da. Gaitasunak aurkeztuko dira eta berdintasunarekin eta osasunarekin duen lotura aztertuko da.

## LARUNBATA, 18

**Getxo**, autobusa, 17:30 Antolatzaileak: Mujeres con voz eta Biltzen

**AHALDUNTZE PROZESUA. BERDINTASUNAREN AURRERA PAUSOA** Elkartera iritsi berri diren emakume migratzaileei ahalduntzea zer den azaltzea eta esperientziak partekatu eta norberaren zein taldearen gaitasunak hobeto ezagutzea norberaren bizitza eta emakumeak azpian jartzen dituzten gizartearen egiturak aldatzeko xedearekin.

**Bilbo**, autobusa. Antolatzailea: Asociación de Mujeres madres familias monoparentales

### **GURASO BAKARREKO FAMILIETAKO EMAKUMEA**

Baliabideen eta tresnen bat egitetik abiatuta gure errealitatea aldarrikatzeko eta sentitzen dugun aurkako erasoari aurre egiteko emakumeak ahalduntzea. Gure inguruko gizartearen errealitatea, legezkoa eta banakakoa ezagutzea.

## IGANDEA 19

**Basauri**, Marienea 14:00 tan. Antolatzailea Mundubat.

**MESOAMERIKARREN ERRESISTENTZIA SAREAREN ALDEKO EKONOMIA FEMINISTAKO ESKOLAREN AURKEZPENA** Ekonomia Feministaren eskola Bizimodu Duin baten alde Erresistentzian diharduten Emakume Mesoamerikarren Mugimenduak (Mesoek) Mesoamerikako herrialde guztietan (Chiapasetik Panamaraino, Nikaragua izan ezik), Mundubat Fundazioaren laguntzarekin martxan jarri zuten esperientzia da. 2014ko Irailatik Abendura Bizkaiko Feminista Ekonomia Eskola (FEE) jarri da martxan Marienean. Erdialdeko Amerikan lau azken urteetako esperientzia azaltzeko Ana Felicia Torres (Costa Rica) eta Gladys Alfaro (Chiapas) izango ditugu gure artean.